

Larraintzako
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA


IKASTURTEA	2020-2021	IRAKASLEA	Amaia Goienetxe
MAILA	DBH 2	ARLOA	Oinarrizko Hizkuntz Trebetasunak

HELBURUAK, EDUKIAK , EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ESTANDARRAK

1. Hizkuntza ahoz eta idatziz erabiltzea gizarte eta kultura jardueran, modu argi eta zehatzean, nahikoa arin eta aise, egoera eta funtzio desberdinetara egokituz, begirunea eta gizabidea agertuz.
2. Hizkuntzari eta hizkuntzaren erabilerari buruzko ezagutzak nolabaiteko autonomiaz aplikatzea ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta egoki (hizkuntza erregistro desberdinak erabiliz), zuzen eta koherentziaz idatzi eta mintzatzeko.
3. Erakundeekiko eta pertsonen arteko komunikaziorako idazki mota guztiak ulertu eta erabiltzea: gutunak, eskabideak, txostenak, albisteak, erreportajeak...
4. Hizkuntza erabiltzea gauza berriak ikasteko, errealitatea ulertu eta aztertzeke eta pentsamendua finkatu eta garatzeko tresna gisa.
5. Komunikabideek (prentsa, irratia eta telebista) esaten dutena interpretatzea eta arreta bereziz aztertzea ahozko eta idatzizko adierazpena, baita horrek hitzez besteko kodeekin duen erlazioa ere, komunikabideetatik datozen mezuei buruzko jarrera kritikoa garatzeko.
6. Irakurketa eta idazketa baloratzea, komunikatzeko bideak eta kultura aberastasunaren eta pertsonen gozamenaren iturriak diren aldetik.
7. Norberaren baliabideak edo kontsultarako baliabideak (hiztegiak, gramatikak, testu prozesadoreak...) erabiltzea norberaren akatsak zuzentzeko.
8. Ikastetxeko liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irakasgaiari buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa.

OINARRIZKO GAITASUNAK

x	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA	x	GAITASUN SOZIAL ETA ZIBIKOAK
	MATEMATIKA GAITASUNA ETA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO OINARRIZKO GAITASUNAK	x	EKIMENA ETA EKINTZAILTZA
x	GAITASUN DIGITALA	x	KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPEN KULTURALAK
x	IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA:		




Larraintzako

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ESTANDAR EBALUAGARRIAK
Ipuinak	<ol style="list-style-type: none">1. Ideia orokorra antzeman eta berariazko informazioa ateratzea eta ulertu direla erakustea, berariazko jarduera baten bidez.2. Testuak egitea, paperean edo euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz eta ideiak argi eta garbi antolatuz.	<ol style="list-style-type: none">1. Ikaslea, ipuin baten atalak bereizteko gai da.2. Ipuinen hasierarako eta bukaerarako erabiltzen diren esapideak ezagutzen ditu.3. Ipuin bat idazten badaki.
Gutunak	<ol style="list-style-type: none">1. Gutunen egitura ezagutzea.2. Gutun baten ideia orokorra antzematea.	<ol style="list-style-type: none">1. Gutun formalen eta informalen arteko desberdintasunak ezagutzen ditu.2. Gutun formalen eta informalen egiturak menperatzen ditu. Bai gutun formalak baita informalak ere idazten ditu.
Oharrak	<ol style="list-style-type: none">1. Oharren erabilera ezagutzea.2. Oharren egitura ezagutzea.	<ol style="list-style-type: none">1. Noiz eta nola idatzi ohar bat badaki.
Ortografia, puntuazioa eta gramatika birpasatzea (araugintza)	<ol style="list-style-type: none">1. Gramatika eta ortografia arauak ezagutzea.	<ol style="list-style-type: none">1. Puntuazio arauak ongi erabiltzen ezagutzen du.2. Komuntadura zer den eta zertarako den garrantzitsua badaki.3. Ideiak eta paragrafoak lotzeko erabiltzen diren lokailu eta juntagailu erabilenenak menperatzen ditu.
Antzerkia	<ol style="list-style-type: none">1. Gelan egindako obren irakurketari buruzko iritzia azaltzea.2. Obraren eduki literarioa eta esanahia bereiztea, eta edukia norberaren esperientziarekin lotzea.3. Obraren helburua eta mezua ezagutzea eta historian kokatzea.	<ol style="list-style-type: none">1. Irakurritako testu bati buruzko iritzia emateko gai da eta horretarako erabiltzen diren esapideak ezagutzen ditu.2. Obraren esanahia antzeman ez ezik, bere bizitzari lotzen badaki.3. Irakurritako obra bere momentu historikoan kokatzeko gai da.4. Publizitatea Publizitatea zertarako erabiltzen den ikastea.5. Publizitateak erabiltzen duen hizkuntza eta baliabideak ezagutzea.6. Publizitatearen, gizartearen eta matxismoaren arteko lotura aztertzea
Mitologia	<ol style="list-style-type: none">1. Euskal mitologia ezagutzea.2. Amalur, Mari, Tartalo, Herensugea eta Itsaslamia pertsonaiak ezagutzen ditu.	<ol style="list-style-type: none">1. Ahoz nahiz idatziz horien inguruko istoriak modu kohesionatuan kontatzeko gai da.
Komunikazio hedabideak	<ol style="list-style-type: none">1. Komunikazio hedabidearen kontzeptua ezagutzea eta gaur egungo garrantziaz jabetzea.	<ol style="list-style-type: none">1. Egunkaria, irratia, telebista eta interneta zer diren eta nola funtzionatzen duten badaki.2. Gizartean komunikazio hedabideen eraginez jabetzen da.



Larraintzarko
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

Lanak/ariketak/frogak notaren % 75

Jarrera/portaera notaren %25 (Euskararen erabilera barne)

Ebaluazioa gaindituzat emateko, atal guztien batez bestekoa 5a izan behar da. Batez bestekoa egiteko gutxienez 3 atera beharko dute ikasleek atal bakoitzean, bestela zuzenean suspendituta egongo da ebaluazioa. Kurtsoko azken kalifikazioa hiru ebaluazioen batez bestekoa izango da. Notetan bakarrik zenbaki osoak jar ditzakegunez, nota gorantz borobiltzeko batez besteko notaren dezimala 8koa edo gehiagokoa izan beharko da. Lan batean edo azterketa batean kopiatzen harrapatuz gero, zuzenean 0 jarriko dio irakasleak (beste ikasle bati kopiatuz gero, biei nota bera jarriko zaie) .

ERREKUPERAZIO IRIZPIDEAK

OHT gainditzen ez duenak dagokion errekerperazioa hurrengo ebaluazioan (lanak, azterketak edota jarrerak) egingo du. Hirugarren ebaluazioaren berreskurapena ohiko deialdia baino lehen egingo da. Ohiko deialdian gainditzen ez duenak ohiz kanpoko deialdian gainditu gabekoaren beste errekerperazio bat egin beharko dute.

GUTXIENGOAK: baliabideak, metodologia, aniztasun

1. Eskolako azalpen testuak, kurtsoko ikasgaiekin zerikusia dutenak, ulertzea.
2. Hainbat eratako testuak (azalpena nagusi) idaztea, behar adinako zuzentasun ortografikoa dutenak eta behar bezain irakurgarriak.
3. Testu baten laburpena egitea, komunikazio inguruneari dagozkion koherentzia eta barne batasuna emanez.
4. Kazetaritzako, pertsonen arteko eta erakundeekiko komunikazioan erabiltzen diren testuak ulertzea.
5. Kurtsoko ikasgaiekin zerikusia duten azalpen testuak sortzeko abiapuntuak finkatzea.
6. Kazetaritzako, pertsonen arteko eta erakundeekiko komunikaziorako testuak antzematea: gutunak, eskaerak, txostenak, albisteak, erreportajeak...

BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna


Aniztasuna:

Ikasleen aniztasunaren trataera oso kontu garrantzitsua da, baita zaila ere. Alde batetik, aniztasuna hitzak berak oso egoera ezberdinak hartzen ditu: ikaskuntzaren ikuspegitik nahiko arazo

San Pedro 44 31797 LARRAINTZAR

Tel: 948 309206 Fax: 948 309353

cplarra@educacion.navarra.es / iesolarr@educacion.navarra.es



Larraintzarko
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

erraz eta behin-behinekoak adierazten ditu, baina baita ezagutzaren, emozioen, gizarte egokitzapenaren eta horien guztien barnean dauden disfuntzio sakon-sakonak ere. Bestetik, arazo horiei guztiei erantzuteko ardura ez da irakaslearena soilik; ikastetxeak eta hezkuntza sistemak ere badute horretan zereginik.

Hori esanda, gelaren dinamikak eskatzen duenaren arabera, ikasle bakoitzaren erritmo, interes eta gaitasun desberdinei erantzuteko, zailtasun-maila bat baino gehiagoko zereginak burutzen lagunduko duten baliabideak ditugu: teknologia berriak, lan-koadernoak, ariketa egokituak...

Metodologia:

Metodologia dinamikoa izango da. Euskaran lantzen diren eduki prozedimentalak landuko ditugu.

1. Lana bakarka eta taldeka egingo dute.
2. Antzerki bat prestatuko dute.
3. Gutxienez lehiaketa batean parte hartuko dute.
4. Filmaren bat ikusi eta aztertuko dute.
5. Teknologia berriak ere erabiliko dituzte.
6. Gramatika, hiztegia eta egiturak jolasen bitartez landuko dituzte.

Sinadura
Amaia Goienetxe

Larraintzarren, 2020ko irailaren 17n. .